

Bajo el signo de la Cruz

Hoy, Miércoles de Ceniza, nuestra Diócesis se dispone a iniciar la Cuaresma bajo el signo de la Cruz. Por una parte, llega a nuestra Catedral del Buen Pastor la imagen del *Santo Cristo de la Agonía*, esculpida en 1622 por Juan de Mesa. Se trata de una de las mejores tallas de la imaginería barroca española, que se venera en la Parroquia de San Pedro de Bergara, y que, después de un tiempo de restauración y exposición en Sevilla, retorna a casa. El próximo domingo, día 18, la imagen será acogida en Bergara. Hasta entonces, del 14 al 16, celebraremos un triduo en honor al Santo Cristo de la Agonía en nuestra Catedral de San Sebastián.

Por otra parte, a partir del 4 de marzo, llegará a nuestra Diócesis la emblemática *Cruz de Lampedusa*, ante la que el Santo Padre hizo uno de los primeros gestos de su Pontificado, mostrando su solidaridad con todos los inmigrantes que arriesgan sus vidas en el Mediterráneo. Esta cruz tan significativa para la vida de la Iglesia y del mundo, recorrerá durante toda la Cuaresma numerosos colegios, parroquias, servicios de Cáritas, etc.; presidirá concentraciones y encuentros; nos acompañará en la tradicional subida a Aránzazu, y la despediremos en la celebración del Domingo de Ramos en la Catedral.

¿Cuáles son las similitudes y diferencias entre ambas cruces? La segunda, la *Cruz de Lampedusa*, en su materialidad, es una cruz sin Cristo. Y la primera, *el Cristo de la Agonía* de Juan de Mesa, es ante todo y sobre todo, una imagen del Crucificado, a punto de entregar su vida por la redención del mundo.

En el Catecismo aprendimos que la cruz es la “señal” del cristiano. Dicho de otro modo, la cruz es un “signo”, cuyo significado estamos llamados a descubrir y Dios quiere revelarnos. Es un signo formado por dos “palos”, uno horizontal y otro vertical. La *Cruz de Lampedusa* simboliza de forma especial la dimensión horizontal de la cruz: la solidaridad con el sufrimiento del mundo. Por su parte, el Cristo de la Agonía de Bergara subraya la dimensión vertical de la cruz, su sentido trascendente: Jesucristo ofrece su vida al Padre por la redención del mundo.

La Cruz de Lampedusa nació de la sensibilidad del Papa Francisco hacia el drama de la inmigración en el Mediterráneo, siendo construida con dos travesaños de un cayuco naufragado. Decía San Juan Pablo II que existen cuatro actitudes posibles ante el mundo: el conformismo, la oposición, la no participación y la solidaridad. Solo la última es digna del hombre, creado a imagen y semejanza de Dios; solo la solidaridad es capaz de superar la ley de la selva a la que nos aboca la búsqueda egocéntrica del bienestar. Ocurre, sin embargo, que la solidaridad es mucho más que un concepto atractivo y políticamente correcto. La solidaridad es muy comprometedor. Nos implica y nos complica (aunque finalmente nos simplifica). Decía el Papa Francisco que la solidaridad sigue tres pasos: “hacerse cargo”, “cargar” y “encargarse”. Es posible que un planteamiento tan frontal pueda darnos miedo. Tal vez tendríamos que reconocer que nos ronda el temor de que la solidaridad nos reste, en vez de sumar. Nada más lejos de la realidad, ya que nada es verdaderamente nuestro hasta que lo compartimos. Una alegría compartida es doble alegría; y una pena compartida, media pena.

Por su parte, *El Cristo de la Agonía* de Juan de Mesa, subraya la trascendencia del misterio de la cruz. Jesucristo ha realizado el milagro de transformar el sufrimiento-consecuencia del pecado- en un instrumento para la redención del mismo pecado.

Nuestra miseria ha quedado clavada en la cruz, tal y como lo expresaba con gran belleza San Bernardo de Claraval: "Cuando las manos de Cristo fueron clavadas en la cruz, él clavó también allí nuestros pecados".

Vittorio Messori, un conocido periodista que entrevistó varias veces a San Juan Pablo II, decía: "No hay otra respuesta al problema del mal, que la cruz de Jesús, en la que el mismo Dios sufrió el último suplicio. Solo esta respuesta elimina el escándalo de un Dios tirano que se divierte con los sufrimientos de sus criaturas, porque propone a la vista de todos un escándalo todavía mayor". Pues bien, si la pasión de Cristo ha sido el medio para nuestra redención; entonces, estamos llamados a entender que el ofrecimiento de nuestro sufrimiento unido a la cruz de Cristo, se convierte en nuestra colaboración a esa misma redención.

Soy consciente de que el mensaje de la cruz navega contra corriente. Pero lo que está en juego es el mismo concepto de Dios. De hecho, la "New Age" pretende sustituir a Dios por la felicidad. Una pretensión absurda, ya que sin causa no hay efecto, por lo que sin Dios no hay felicidad. A lo cual añado que sin cruz no hay gloria. Como ha solido repetir el Papa Francisco: "Todos quieren resucitar, pero no todos quieren hacerlo por el camino de la cruz".

En resumen, la *Cruz de Lampedusa* y El Cristo de Juan de Mesa no son divergentes sino convergentes: se encuentran en su intersección, mientras que se abren a los cuatro vientos. Son la señal del amor redentor de Dios hacia el mundo, y al mismo tiempo, son la llamada a nuestro compromiso de amor con los desheredados de la Tierra.

Recuerdo que en la película de Mel Gibson sobre la Pasión, hay una escena en la que Jesús besa el madero en el que va a ser crucificado, ante la perplejidad de un soldado romano que le llama necio... ¿Necedad o sabiduría? Os invito a besar con fe, durante la Cuaresma, esta "señal" del cristiano; porque solo cuando lleguemos a amar la Cruz, nuestra cruz se convertirá en una cruz sin cruz.

Gurutzeari begira

Gaur, Hausterre-egunean, Gurutzeari begira emango diogu hasiera Garizumari. Alde batetik, Artzain Ona Katedralera ekarriko dute Hilzorian den Kristoren irudia, Joan Mesak 1622an egina. Espainiako irudi barrokoen artean onenetakotzat jotzen dute; Bergarako San Pedro Parrokian gurtua den Kristo hau, Sevillan zaharberritu eta erakusketan eduki ondoren, etxera dator berriro. Datorren igandean, hilaren 18an, Bergaran onartua izango da. Aurretik, hilaren 14tik 16ra bitartean, hiruurrena ospatuko dugu Donostiako Katedralean Hilzorian den Kristo honen omenez.

Bestalde, martxoaren 4tik aurrera, gure Elizbarrutian izango dugu Lanpedusako Gurutze ospetsua; gurutze honen aurrean egin zuen Aita Santuak bere aitasantuzaldiko lehenengotako keinua, Mediterraneoko itsasoan bizia arriskatzen duten guztiei solidaritatea erakusteko. Elizaren eta munduaren bizitzarako hain esanguratsua den gurutze hau hortik zehar ibiliko da gure Elizbarrutian: ikastetxe, parrokia, Caritas zerbitzu etabarretan; elkarretaratze eta topaketetan gure artean izango da; Arantzazura urtero egin ohi dugun ibillaldian ere geurekin izango dugu, eta Katedraleko Erramu Igandeko ospakizunean egingo diogu azken agurra.

Zertan dira antzeko eta zertan desberdin bi gurutze hauek? Bigarrena, Lanpedusako Gurutzea, dagoen moduan, Kristorik gabeko gurutzea da. Bestea, berriz, Joan Mesak egindako Hilzorian den Kristorena, lehenen-lehenengo eta batez ere, Gurutziltzatuaren irudia da, munduaren salbamenerako bere bizia eskaintzeko zorian dagoen Kristoren irudia.

Kristau Ikasbidean ikasi genuen gurutzea dela kristauaren “seinalea”. Beste era batera esanda, gurutzea “seinale” edo “ezaugarri” bat da; ezaugarri horren esanahia eta horrekin Jainkoak agertu nahi diguna aurkitzea dagokigu. Bi “makilaz” osatua dagoen seinalea da, bata etzana, horizontala, bestea zutikakoa, bertikala. Gurutzearen alderdi horizontala irudikatzen du bereziki Lanpedusako Gurutzeak: munduan dagoen sufrimenduarekiko solidaritatea, alegia. Alderantziz, gurutzearen alderdi bertikala azpimarratzen du Hilzorian den Kristo Bergarakoak, hau da, bere alderdi traszendentea: Jesu Kristok bere bizia eskaintzen diola, alegia, Aitari munduaren erospen edo salbamenerako.

Frantzisko Aita Santuaren sentiberatasunetik, Mediterraneoan imigrazioak bizi duen egoera negargarritik, sortu zen Lanpedusako Gurutzea; hain zuzen, itsasoko ezbeharrak izandako egurrezko txalupa baten zeharkako bi ohol erabiliz egina izan zen gurutze hori. Joan Paulo II.a santuak zioen, lau jarrera izan daitezkeela munduaren aurrean: ados egotea edota kontra egotea, arazoetan ez sartzea edota solidaritatea erakustea. Azkeneko hau bakarra da Jainkoaren antzirudira sortua den gizakiari benetan dagokiona; solidaritatea bakarra da gure onginahi egozentrikoak itsu-itsuan irrikatzera eramaten gaituen lege basatia gainditzeko gai. Solidaritatea, ordea, ez da kontzeptu erakargarri eta politika ikuspegitik itxura oneko hutsa, askoz gehiago da. Solidaritateak konpromiso gogorrean jartzen gaitu. Arazoetan sartzera behartu eta arazoetan korapilatzen gaitu (nahiz eta azkenean gauzak erraztu). Frantzisko Aita Santuak zioenez, hiru pauso edo urrats ditu solidaritateak: “konturatu”, “beregianatu” eta “bere gain hartu”. Horrela, zuzen-zuzenean egindako planteamenduak beldurtu egingo gaitu, agian. Beharbada, aitortu beharko genuke, solidaritateak zerbait kendu egingo digun beldurra sumatzen dugula, zerbait eman ordez. Baina gauzak ez dira horrela, ez baita ezer egiaz geurea izaten, elkarren artean banatzen ez dugun arte. Elkarrekin bizitako poza bikoiztu egiten da; eta elkarrekin bizitako nahigabea, erdibitu.

Alderantziz, Joan Mesaren Hilzorian den Kristok gurutzeko misterioaren traszendentzia azpimarratzen du. Bekatuaren ondorio den sufrimendua, bekatu horren

beraren salbamenerako baliabide bihurtzeko miraria egin du Jesu Kristok. Gurutzean iltzatua gelditu da gure miseria; hori adierazi zuen hitz egokiz San Bernardo Claravalekoak: “Kristoren eskuak gurutzean iltzatuak izan zirenean, iltzez josiak gelditu ziren han gure bekatuak ere”.

Joan Paulo II.a santua behin baino gehiagotan elkarrizketatu zuen Vittorio Messori kazetariak zioen: “Gaizkiaren arazoarentzat ez dago Jesusen gurutzea beste erantzunik, gurutze horretan Jainkoak berak jasan baitzuen azken sufrikarioa. Horrelako erantzunik bakarrik ezabatu dezake, izakiak sufriarazten jolasean dabilela dirudien Jainko zapaltzailearen eskandaloa; oraindik handiagoa den beste eskandaloa begien aurrean jarriz”. Horrela bada, Kristoren nekaldia gure erospenerako baliabide izan denez, ulertu behar dugu, guk geure sufrimendua Kristoren gurutzearekin bat eginez opari eskaintzeak, Kristoren lankide egiten gaituela erospen-ekintza horretan.

Konturatzen naiz gurutzearen mezua haizearen kontra doan mezua dela. Baina Jainkoaren kontzeptua bera da hemen auzitan dagoena. Hain zuzen, “New Age” delakoak zorientasunaz ordezkatu nahi du Jainkoa. Baina zentzugabekeria da hori, egilerik gabe ez baitago egintzarik, eta Jainkoa gabe ere ez dago zorientasunik. Era berean, gurutzerik gabe ez dago aintzarik. Frantzisko Aita Santuak errepikatu izan duenez: “Berpiztu, bai, denek nahi dute berpiztu, baina ez dute denek gurutzerako bidea ibili nahi”.

Laburbilduz, Lanpedusako Gurutzea eta Joan Mesaren Kristoa ez dira elkarren kontrako bi ikuspegi, elkarrekin bat datozenak baizik: bi besoek bat egiten dute eta lau haizeetara zabaltzen dira. Jainkoak munduarentzat duen maitasun salbatzailearen seinale dira biak, eta, aldi berean, mundu honetako behartsuen aldeko gure jarrera solidarioa izatera egiten zaigun deia.

Gogoan dut Mel Gibsonen Nekaldiari buruzko filmean azaltzen den pasarte bat: Jesusek musu ematen dio bera gurutziltzatua izango den gurutzeko enborrari. Horren aurrean txundituta gelditu den erromatar gudariak “zoroa”..., esaten dio. Zorakeria ala jakinduria? Garizuman zehar emaiozue musu kristauaren “seinale” honi; Gurutzea maitatzera iristean bakarrik bihurtuko da gure gurutzea gurutzerik gabeko gurutze.